

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Foru Gobernuak Nafarroako artxibategi eta museoetarako baliozko objektuak dohaintzan eman dituzten pertsonak omendu ditu

Barcina Lehendakariak "aintzatetsi eta eskertzeko" diploma bana eman die Nafarroaren Eguneko ekitaldien barruan.

Lunes, 25 de noviembre de 2013

Nafarroako Gobernuak, astelehen honetan, azken urteetan Foru Komunitateari baliozko objektuak dohaintzan eman dizkieten [persona eta erakundeak](#) omendu ditu. Objektu horiek artxibategi eta museo publikoetarako dira, esate baterako, Nafarroako Museoa, Julio Caro Baroja Museo Etnologikoa, Karlismoaren Museoa eta Nafarroako Artxibategi Nagusia.



Barcina Lehendakaria eta Goicoechea eta Sánchez de Muniáin lehendakariordeak, dohaintzak egin dituztenekin.

Omenaldia Nafarroako Jauregiko Tronu Aretoan izan da, eta [2013ko Nafarroaren Egunerako](#) ekitaldien programaren barruan egin da. Bertan izan dira Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakaria, eta Lourdes Goicoechea eta Juan Luis Sánchez de Muniáin Foru Gobernuko lehendakariordeak.

Omenaldian, Barcina Lehendakariak diploma bana eman die. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak familiako edo norberaren ondareko ondasun "baliotsuak" dohaintzan "eskuzabalki" eman dituztenen "eskuzabaltasuna eta filantropia modu xume baina argian itzuli" nahi izan du.

Horregatik, Yolanda Barcinak [mintzaldian](#) zera azpimarratu du: "garai hauetan, ezin izaten dugu gure premiez haraindi ikusi", baina halako jarrera "eskuzabal eta goresgarriek inoizko esker eta aintzatespen handiena merezi dute".

Lehendakariak zehaztu duenez, dohaintzen artean, agiri-funtsak, margolanak, marrazkiak, zigiluak, argazkiak, pieza arkeologikoak eta "gure historia eta kultura" ikertzaileen eta, oro har, herritar guztien esku jartzen dituzten egile-

eskubideak daude.

Zehazki esanda, objektu, zigilu eta argitalpen karlistak daude, XIX. mendearen amaierako eta XX. mendearen hasierako sukaldeko errezeta-liburu bat, Lorenzo Soriano Garridoren agiri-funtsa, Emiliana de Zubeldía piano-jotzaile eta konpositorearen jabetza intelektualaren eskubideak eta Francisco Espoz y Mina militarren familiaren artxibategia.

Horiez gain, dagoeneko desagertuta dagoen Nafarroako Demokraten Elkargunea alderdi politikoaren artxibategia, Nafarroako Museorako margolan, marrazki eta negatiboak eta Julio Caro Baroja Museo Etnologikorako hainbat objektu ere, esate baterako, qaita bat eta kaiku bat.



Barcina Lehendakaria omendutakoei hitz egiten.